



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-11-19**

VI.URTEA 1563.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako hiltegian egin zuten Zine Maratoiaren aurkezpena, atzo. Irudian, antolatzaileak . I.T.

BELDURREZKO ETA FANTASIAZKO FILM LUZEAK ETA LABURRAK LARUNBATEAN IKUSGAI

TOLOSA Zine Maratoia argazki proiektioarekin hasiko da; Gazteria sailak antolatu du, «hauen parte-hartzea bultzatzeko helburuz» 3

Autodeterminazio eskubideari buruzko hainbat hitzaldi antolatu ditu ezker abertzaleak

TOLOSA Arlo desberdinetan jorratuko dute gaia; «egun aldaketarako aukerak inoiz baino nabarmenago ageri zaizkigu», adierazi dute 7

Aurtengo Argazki Rallyan hiru herritarrek irabazi dute

BERASTEGI Jaione Barriola, Julen Uranga eta Idoia Labaien izan dira argazkilari onenak 4



Elizan egin zuten emanaldiaren une bat. EDUARRAYET

Txintxarrikoen emanaldiak, arrakastatsuak

ALEGIA Jende ugari izan zen Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzen emanaldian 5

**Babarrunaren
oraina eta geroa
aztertuko dute
Babarrunaren
Astearen baitan**

TOLOSA Gaur izango da mahai-ingurua, Kultur Etxean, 19:00etan 3

**Erakusketa
ikusgai
kiroldegian,
Mugikortasun
Asteari buruz**

ANOETA Ikastolak egindako ekintzekin osatu dute; hainbat datu ere ageri dira 6

Etzi 21:30ean Baliarraingo Kultur Gelan 'Herri kirolen eta herri kirolarien beharrak eta gabeziak' mahai-ingurua antolatu dute Kultur Elejiran eta gonbidatu bereziak izango dira bertan.

Herri kirolen habitik abiatuta

NEREA URBIZU

Baliarrain herri kirolari askoren kabia da: trontzalariak, segalariak, lokots-biltzaileak... Horretaz gain, zaletasuna ere badago. Horren erakusle, etzi egingo duten herri kirolei buruzko mahai-ingurua izango da. Honela bataiatu dute: *Herri kirolen eta herri kirolarien beharrak eta gabeziak*. Hau, 20:00etatik aurrera izango da, Kultur gelan bertan.

Aitziber Arteaga kultur ekitaldiak antolatzen aritzen da Baliarrainen, eta berak argitu bezala, «mahai-ingurua egiteko orduan, jendea erakartzeko izena duen norbait ekarri behar zela ikusten genuen eta Aimar Irigoien otu zitzaigun. Gero, gaia jarri genuen, herri kirolak: Baliarrainekin lotuta dago erabat». Gutxinaka, hariak lotzen segitu zuten eta azkenean zazpi lagunek osatutako mahai-ingurua izango da, Koldo Alduntzin moderatzaile dutela.

«Herriarrek osatutakoa nahi genuen, baina Koldo Alduntzinek berak nahiago zuen beste izen gehiagokoren bat gonbidatzea, polita izango litzatekeela». Ondorioz, Aitor Esnaola, Lourdes Intxausti, Iñaki Azurmendi, Xabier Urresti eta Arkaitz Arteaga gehitu dira. «Xiba elkartekoren bat ere gonbi-

datuta dago, baina ez dute oraindik zehaztu zein izango den». Etziko mahai-inguruan ariko dena gaia ondo menperatzen duen jendea dela, behintzat, argi dago.

Gai serioari pisua kendu nahian
Gaiak berak edukin serioa izango du hasiera batean, gaia bera bezalakoa. «Baina guk Koldo Alduntzini ahal den neurrian behintzat, bukaeran seriotasun puntu hortatik zertxobait aldentzea eskatu diogu:

Ordu eta erdi inguru iraungo duen mahai-inguruan irudiak ere tartekatuko dituzte

ukitu informala eman diezaiola, hain zuzen ere». Beraz, espero ez diren galderak eta erantzunak ere entzuteko aukera badago...

Horretaz gain, ziurrenik ordu eta erdi inguru iraungo duen mahai-inguruan irudiak ere tartekatuko dituzte, denak ere, herri kirolen lotutakoak.

Bukatzeko, afaria

Ondoren, afaria egiteko asmoa dute bertaratu direnek. Baliarraingo Udalak sagardo eta ardo jarriko du eta norberaren kontura jana-



Arkaitz Arteaga, Euskadiko Segatxapelketako txapeladuna. Ostiraleko mahai-inguruan parte hartuko du. HITZA

» PARTE-HARTZAILEAK

- **Aimar Irigoien.** Harri-jasotzailea.
- **Xiba elkarteko kide bat.**
- **Aitor Esnaola.** Trontzalaria.
- **Arkaitz Arteaga.** Segalaria.
- **Lourdes Intxausti.** Herri kirolaria.
- **Iñaki Azurmendi.** Aizkolaria.
- **Xabier Urresti.** Sokatiralaria.
- **Koldo Alduntzin.** Moderatzailea, herri kirol kazetari ohia.

riarena izango da. Trikitixa eta pandero doinuak ez dira faltako. Elkarteak bilduko dira horretarako.

Egun honetan jendea joatea espero dute, entzule gisa, eta parte-hartzaile gisa. Ondoren, giro jatorrean festa egitea espero dute herri kirolari eta aditu hauek.



Sokatiratzaleen artean Urresti izango da. Irudian, ibartarrak tiratzen. I. T.

«Apirilean hasi nintzen txapelketa prestatzen eta abuztuan puntu onenera iritsi nintzen»

ARKAITZ ARTEAGA | Segalaria

Baliarrain » Baliarraingo mahai-inguruan segalari gazteak ere parte hartuko du; aurten Euskadiko Segatxapelketa irabazi du.

N. URBIZU

Baliarrain herri txikia da, eta seguruenik, herri kirolari gehien duen herria da proportzioan. Arkaitz Arteaga segalaria da horietako bat (Baliarrain, 1984). Aurten, Leitzan jokatu zen Euskadiko Segatxapelketako txapeladuna izan da: bere lehen finala izandakoan, kirolari gazteak 1.914 kilo belar moztu zituen.

Aurtengo Euskadiko Segatxapelketako txapeladuna izan zara. Zein zapora dauka irabazteak?

Nire lehenengo finala eta txapela izan ziren: iaz hasi nintzen parte hartzen. Ez nuen espero, baina itxaropen puntua banuen. Leitzan entrenatzen aritu nintzen txapelketaren aurretik. Dena ondo egin da aukerak ikusten nituen eta oso pozik nago. Mementoan sinestu ezinik nengoen, ez nuen kristoren poza mementoan sentitu. Orain irudiak ikusi eta gehiago disfrutatzen dut.

Bereziki prestatu zenuen proba?
Ondo prestatu nuen, apirila aldera hasi nintzen. Hobetzen joan nintzen, gero eta hobe nihoan eta abuztuan puntu onenera iritsi nintzen. Nire helburua aurten ikastea zen, oinarria ondo ikastea, hain zuzen. Aurten Asteasuko jendearekin aritu naiz askotan eta beraiekin, egia esan, asko ikasi dut.

Nolatan hasi zinen segan?

Duela hiru bat urte hasi nintzen. 3-4 urtez Andoni Goikoetxea segalariaren belar-biltzaile nintzen beste batzuekin batera. Euskadiko Txapelketa irabazi zuenean guzuzen belarra biltzen. Duela hiru urte inguru, Jokin Garmendiari (orain trontzarekin ari da) erakutsi behar zidala esan nion, arratsalde batean. Orduan hasi nintzen, ikasteko gogoa nuelako. Ondoren, Baliarraingo festetan lehen aldiz aritu nintzen. Iaz lehen aldiz hartu nuen parte. Aurten, berri, txapela lortu dut.

Datorren urtean berriz arituko zara?

Bai, noski. Gutxienez 3 lagun behera dira txapelketa egiteko, esperatutaz... Baina orain atsedean hartzeko denboraldi bat nahi

nuen, abuztuko txapelketarako entrenamenduak gogorak egin bainituen. Orain hasiko naiz berri, korrikan, bizikletan... Berandago segarekin hasteko, baina sega hartu aurretik fisikoa ondo izan behar da.

Egia da ere belar biltzaile aritua, nozio batzuk hartuko zenituela.

Bai, Goikoetxearekin aritzean, posturak eta ikusteak bakarrik asko egiten du.

Beraz, Jokin Garmendiak erakutsi zizun hasiera batean?

Bai, bera segan aritzen zen eta erarik gabea erakutsi nion. Bera egun horretan harritu egin zen, ez zuelako espero hainbeste denboran jarraian ni segan aritzea; saio luzea egin omen nuen.

Zein dira zure ustez segak dituen beharrak?

Erakustaldi oso gutxi egiten da. Aizkoran eta harri-jasotzeak urtean edozein garaitan egin daitezke eta pilotalekuan ere, baina sega ez. Gurea udan eta udaberrian izan daitezke: muga gehiago dauzka. Faktore asko izan behar dira kontuan: eguraldia, belazea behar da... Esfortzu handia da segan aritzea: entrenatzeko tokia behar da, belarra, zorrotzeko pertsona bat, biltzeko taldea, horiei ere zerbait eman behar zaie. Ez dut esango zorra egitera iritsi naizela, baina hortxe-hortxe. Egia esan, laguntza ekonomikoa inportantea da.

Herri kirolari gazteak badaude.

Bai, Rekondu, Perurrena, Kanflanka, nireu, Eneko Garmendia... Baina ikusle aldetik, lehenago afizio gehiago zegoen, segan behintzat. Aizkorak adibidez telebistaren bultzadarekin asko irabazi du, azken batean, telebistak pizten du zaletasuna.

Zeinen antza izan nahi zenuke?

Ez nuen segan ezagutu, baina Juan Joxe Irazustaren antza izan nahi nuke: oso ona omen zen gaztetan. Zaila izango da, baina nire fabrika hori izango litzateke.

Babarrunaren oraina eta geroa aztergai

ERREDAKZIOA

Gaur ekingo dio Tolosako Babarrunaren Asteak. Egitarauari hasiera emateko, ordea, babarruna dastatu ez baino honen inguruko mahai inguru izango da, 19:00etan, Kultur Etxean.

Hain zuzen ere, babarrunaren oraina eta geroa aztertzea izango du helburu mahai inguruak, eta horretarako, babarrunaren produktzio eta elaborazioan aditu direnek parte hartuko dute bertan: Joxe Antonio Garmendia, Gipuzkoako Foru Diputazioko Landare Alorreko zuzendaria; Jorge Hernandez, Slow Food Espainiakoa; Roberto Ruiz, Tolosako Fronton jatetxeko eta Xabier Goikoetxea,

Tolosako Babarrun Ekoizleen elkarteak.

Roberto Ruizen kasuan, sukaldari bezala gaiaren inguruan duen esperientzia azalduko du; «slow food nazioarteko mugimendua da, orain del hainbat urte batez ere, Italian sortua, eta janari ona eta osasuntsuanoinarritzen da; hain zuzen, horren adibide da Tolosako babarruna, slow food-en baitan duela gutxi sartua». Beraz, Tolosako Babarruna zergatik dagoen slow food-en baitan, eta horrek zer esan nahi duen azalduko du; era berean, berak zeri ematen dion garrantzia gehien ere kontatuko du gaurko mahai inguruan: «zuzenean baserriarrei erosteak eta pro-



Kastetxeetako gazte batzuk babarruna ereiten. E.EZBIZA

duktu hauek baserriak iritsi bezain pronto platerian izateak duen garrantzia azalduko dut, hau da, azkartasun horrek eskaintzen duen kalitateaz».

Babarrunaren inguruan zerbaitek gehiago jakin nahi duenak, beraz, gaur du horretarako hitzordua egokia. Bihar, berriz, babarrunaren inguruko topaketa izango da.

Laburrak

Kolektorearen obrak eta Inauteriak aztergai, bihar

AZPIEGITURAK • Inauteriak eta kolektorearen obrak gaiarekin bilera izango da bihar, 19:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian. Jai batzordeak egin du deialdia, eta bigarren bilera da gai honekin.

'Tiro en la cabeza' filma bihar, Zine Forumean

ZINEFORUMA • Asteroko Zine Forum saioan, *Tiro en la cabeza* filma izango da bihar ikusgai Leidor aretoan. Jaime Rosales da film luze honen zuzendaria. Ohiko moduan, 19:15ean izango da lehendabiziko saioa, eta bigarrena berriz, 21:45ean hasiko da.

Beldurrezko Zine Maratoia izango da larunbat gauean, Leidor aretoan

» EGITARAUA

Argazki proiektzioa 21:00etan

■ **Iñigo Royo**. Bere ikasleen argazkiak botako dituzte pantaila handian. Santu Guztien Eguna dute gai bezala, eta hilerriko argazkiak dira.

Film laburrak 21:30etik aurrera

■ **'Belarra'**. (Koldo Almandoz, 2002). 10 minutuko iraupena. Emakume bat bere semea besoeetan duela baserriko zelaira iritengo da eguzkitan izara batzuk zabalzera. Urrutira, gizon bat belarra moztzen ari da. Bat-batean, haurra altxatu eta belarretan murgilduko da...

■ **'Por un infante difunto'**. (Tinieblas Gonzalez, 1998). 9 minutuko iraupena. Istorio honetako haurra- ren aitak tebibistaren aurrean edan eta edan besterik ez du egiten, eta amak, berriz, bere senarrarengandik jasotzen duen indarkeria guztia bere semeagan iraultzen du. Egun batean, haurrak txorizoa erostera joan behar du auzoko harategira. Ezin duenez ordaindu, bitzita betirako aldatuko dion zerbaitek beldurgarria gertatuko da.

■ **'Troxot'**. (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 1997). 15 minutuko iraupena. Istorioa ohiko euskal sagardotegi batean kokatzen da. Bertan, bezero batzuk ia txuleta bihurtuta aterako dira handik, negozioaren jabe den familiak etorkizunaren, garai berriek dakartzaten aldaketen eta sagardotegia irekitzen jarraitzeko beharrezko diren ekimen berrien inguruan hausnartzen duen bitartean.

■ **'...Ya no puede caminar'**. (Luiso Berdejo, 2001). 13 minutuko iraupena. Istorio honetako haurri, Pachecori, animaliek beldurra eta



Tolosako hiltegian egin zuten Zine Maratoiaren aurkezpena, atzo. Ezkerrean, Jose Luis Rebordinos, Donostiako Beldurrezko Astearen zuzendaria. I.T.

higuina eragiten diote. Bere aitak arazoko gairiditxeko era azalduko dio.

■ **'Tercero B'**. (Jose Maria Goena-ga, 2002). 18 minutuko iraupena. Gizonak 40 urte ditu eta baxua eta anonimoa da. Emakumea, gazte-xeagoa da, 42 tailua du. Borroka hastear dago. Biek ezagutzen duten sekretuak ezin du lau paretan artetik irten.

■ **'7:35 de la mañana'**. (Nacho Vigalondo, 2003). 8 minutuko iraupena. Goiz batean, emakume batek zerbaite desberdina antzematen du egunero gosaltzen duen tabernan: gainerako bezero eta zerbitzari guztiak isilik daude. Guztiak lurrera begiratzen dute. Inork ez du bere gosaria ukitzen. Bat batean, abesti bat entzungo da...

■ **'El tren de la bruja'**. (Koldo Serra, 2003). 17 minutuko iraupena. Gizon batek bere burua eskainiko du esperimentu bat egiteko. Helburua, muturreko beldurrezko baldintzetan gizakiok dugun jokaera aztertzea da. Esperimentua amaitzea lortzen badu, diru asko eman-gotziteko dote...
■ **'Maquina'**. (Gabe Ibañez,

2006). 17 minutuko iraupena. Min-naren eta harriduraren bidez, neska batek bere izaera berria eta galdutako armonia lortzeko bidea aurkituko ditu.

Film luzeak

■ **'Millenium actress' (23:15)**. Anime japoniarra. 87 minutu. (Satoshi Kon, 2001). Chiyoko Fujiwara japoniar zinemako legendazko izarra izan zen duela hogeita hamar urte bizitza publikotik bat-batean desagertu zen arte. Emakume-aktore misterioitsuarekin itsutua, Genya Tachibana dokumental-egilea mendian bakar-tua dagoen etxeraino joango zaio elkarrizketatzeko asmoz.

■ **'Dejame entrar' (01:00)**. Fantasiako zinema. 114 minutu. (Tomás Alfredson, 2008). Erabat erromantikoa eta gazi-gozo krun-dela. Banpiroen dotoretasun moralari buruz hitz egiten du, eta baita gizakiok banpiroenganako dugun beharrez ere. John Ajvide Lindqvisten liburu paregabearen oinarrituta, neskato banpiro baten eta bere lagun gizakiaren arteko istorioari buruzko ailtxorra dugu film-a.

Kultura » Argazki proiektzioa, film laburrak eta luzeak izango dira ikusgai, 21:30etik aurrera; 5 euro balio du sarrerak.

IÑIGO TERRADILLOS

Beldurrezko eta fantasiako zinemaren zaleak zortedun dira, izan ere, Leidor aretoan gai horrekin loturiko film luzeak eta laburrak izango dira ikusgai larunbat gauean.

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen ondotik dator Tolosako Beldurrezko Zine Maratoia, Tolosako Udaleko Gazteria sailak antolatuta. Ekimen hau antolatzen arrazoia azaldu zuen atzo Joselu Andueza gazteria zinegotziak: «gazteen parte-hartzea bultzatu eta indartu nahi dugu ekimen mota hauetara; hain zuzen ere, Beldurrezko Zine Maratoia 14 urtetik gorako herritar guztiarentzat irekia bada ere, bereziki gazteei zuzendua dago». Egitarau guztiaz gozatzeko aukera izango da 5 euro ordainduta, eta dagoeneko 220 sarrerak saldu dituztela azaldu dute.

Hala, herriko gazte ugari hartuko dute parte, izan ere «aisialdi taldeko kideekin eta ikastetxeetan izan gara ekimena azaltzen». Aisialdi taldekoen kasuan, Leidor aretoan barra kudeatzeko ardura hartuko dute. Asvineneako aktoreek ere hartuko dute parte, euren zeregina animazioarena izango delarik.

Donostian saria jasotakoak

Maila handiko filmak ikusteko aukera izango da Iñigo Royoren ikasleek ateratako argazkien proiektzioaren ostean; film laburrekin hasiko da maratoia, dena, 8 izango direlarik ikusgai, eta ondoren, bi film luzeen txanda izango da.

Batetik, *Millenium actress* japoniar anime filma izango da, eta ondoren, *Dejame entrar* emango dute, aurtengo Donostiako jaialdian saritua izan dena. Hain zuzen ere, Donostiako Beldurrezko Astearen zuzendaria, Gaztelum bizi den Jose Luis Rebordinos izan zen atzo Tolosako hiltegian egin zuten prentsaurreko berezian. Ekimen honen kalitatea nabarmentzeaz gain, Tolosako Zine Forumeko arduradunek egiten duten lana azpimarratu zuten: «filmen aukeraketa oso ona egiten dute, zoriontzekoa da».

Animatzen direnak prestatuta joan beharko dira, sorspresak eta sustoek ez baitute hutsik egingo larunbat gauean Leidorren.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Erretiratuen Egunean izena emateko epea, amaitzeaz

OREXA ● Igande honetan, hilak 23, Erretiratuen Eguna izango dute Orexan. 12:00etan meza berezia izango dute, izan ere harizko instrumentuez osatutako laukotearen kontzertua ere entzun ahal izango da elizan. Ondoren, bazkaria izango da, opari banaketa eta guzti, herriko tabernan. Izena emateko epea gaur amaituko da eta bete beharreko paperak herriko tabernan eta elkarteetan daude.

78. eta 79. belaunaldiakofen afaria antolatu dute

IBARRA ● Herriar talde batek 1978. eta 1979. urteetan Ibarren jaiotako afaria antolatzen ari da. Afaria herriko Eluxka jatetxeko sagardotegian izango da abenduaren 20ean. Afarira joan nahi dutenak abenduaren 13a baino lehenago eman behar dute izena 688 637 113 telefono zenbakira deituta.

'Piparmin Eguna' izango da larunbat honetan

IBARRA ● Ibarako Gaztetxearen 15. urteurrena dela-eta *Piparmin Eguna* antolatu dute larunbat honetarako. Egunen zehar izango diren ekintzetako bonoak 25 euro balio du eta horrekin bazkarirako, jokatetarako, barrikoterako, otartekotarako eta kontzertuetarako sarbidea izango da. Kamiseta bat ere oparituko dute. Horiek horrela, 11:30etik aurrera hamaiketako, triki-poteoa, gazte bazkaria eta olimpiadak izango dira, besteak beste. 22:30ean hasiko dira Kaotikoren eta Montons taldeen kontzertuak Gaztetxean.

Galtzakomik lehiaketaren bukaera, gertuago

IBARRA ● Abenduaren 12an Ibarako Kultur Etxean emango dute jakitera zein den Galtzakomik euskarazko komiki lehiaketaren irabazlea. Bien bitartean, lanak aurkezteko epea amaitzen ari da, azken aukera hilaren 26ean izango delarik. Galtzaundi Euskara Taldeak eta Ibarako Udalak antolatutako lehiaketa honetako lehen saria 600 eurotako izango da 18 urteko gorakoentzat eta 400 eurotako gazteagorentzat.

@ Bideoak. Eskualdean gertatzen diren berrien inguruko albisteak ikusi ahal dituzue TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean eta baita 90 bideo inguru ere. Hauek gaiaren arabera daude ataletan banatuta, esate baterako, Abiadura Handiko Trenan, bertsolaritzan, Inauterian, Kilmetroak 08, kirola, musika, natura eta politika. Era berean, zeuen irizirik ere jaso nahi ditugu eta gure eztabaidetan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu:

www.tolosaldeko-hitza.info



Jaione Barriolaren lanak lehen saria irabazi du Berastegiko Argazki Rallyan. I. BARRIOLA

Herria «hobeto ezagutarazteko» Argazki Rallyak baditu irabazleak

Berastegi ● Herriko hiru bizilagunek irabazi dute lehiaketa; Jaione Barriolak, Julen Urangak eta Idoia Labaienek, hain zuzen.

ERREDAKZIOA

Berastegiko Kultur Batzordeak antolatutako Argazki Rallyak baditu jada irabazleak. Edonork hartu ahal zuen parte, baina azkenean herriko hiruk irabazi dute: lehen saria Jaione Barriolarentzat izan da, bigarrena Julen Urangarentzat eta Idoia Labaienek eraman du hirugarrena. Irabazleek diploma bana eraman dute eta baita euren lan irabazlearen handitzea ere marko txukun batean.

Gai bakarra

Parte-hartzaileek gai bakar baten inguruko argazkiak atera behar izan zituzten: itxurak eta langak. Hau da, honekin harremana duten irudiak jaso behar izan zituzten. Kultur Batzordearen hitzetan helburua «Berastegi hobeto ezagutarazteko» izan da. «Gai hau aukeratzearrekin, parte-hartzaileek herriko zehar mugitu behar baitute, eta mendi inguruetara hurbildu», argitu dute.

Lehiaketari hasiera emateko karreteak banatu zituzten parte-hartzaileen artean eta behin karreteak hartuta, bi egun izan zituzten nahi bezain beste argazki ateratzeko, nahiz eta azkenean hiru argazki onenak bakarrik aurkeztu ahal izan zituzten lehiaketara.

Argazkiak, gainera, gaur egun



Julen Urangarentzat izan da bigarren saria. JURANGA



Idoia Labaienek eraman du hirugarrena. I. LABAIEN

kamera digitalak nagusi badira ere, kamera analogiko edo karretekin atera ahal izan zituzten.

Azkenean epaimahaiak, Andoingo zine eta bideo eskolako argazkigintzako ikasle eta irakasleek osatuko, aipatu hiru argazkiak

aukeratzea erabaki zuen, eta arrazoiak desberdinak izan dira; aspektu formalak hartu dituzte kontutan, baita argazkia beraren komposaketa, enkuadrea, aukerutako itxituren edo herriko txoko edertasuna...

Oraindik ere badago zer ikasia Sahararen eta Ekuadorren inguruan

Ibarra ● Kultur Trukea Hamabostaldia igandean bukatuko da; gaurkoan herriko Misio Taldearen txanda da.

ERREDAKZIOA

Ibarako Udalak Ibaratik Misio Taldearen, Tolosaldea Sahararen eta Comunidad de Ecuatorianos Residentes en Ibarra taldeen laguntzarekin urtero antolatu ohi duen Kultur Truke Hamabostaldiko lehen astea pasata, atzo ekin zioten bigarren eta azken asteari. Atzokoan, Sahararen inguruko hitzaldi bat izan zen Kultur Etxean eta gaurkoan, aldiz, Ibaratik Misio Taldearen txanda izango da, izan ere euren azken egitasmoa aurkeztuko dute jendaurrean: *Senidetze Misiolariaren Lorpena: Ibarra Ekuadorreko Santa Rosa eta Babarekin*.

Antzerkia, ostiralean

Ostiralean, berriaz, antzerkiaren txanda izango da. Vuela Bonita Korporation izeneko taldearen *Babel Mundua* da ikusgai izango den lana.

Familiarteko lana da, hain zuzen, *Babel Mundua*, eta kultur arteko asunaren aldekoa da. Lanean kultura bakoitzak bere garrantzia du eta euren arteko errespetua da nagusi. Protagonista nagusia Pandora izeneko neskatila eta bere lagun putrea dira, bikotea irla bakarti batean bizi da eta Jenny, irlako buruzagiak, ez die irilatik alde egiten uzten. Azkenean mundua zeharkatzea lortzen dute, hala ere.

» EGITARAUA

Azaroak 19, GAUR

■ 19:30. *Senidetze Misiolariaren Lorpena: Ibarra Ekuadorreko Santa Rosa eta Babarekin* Ibaratik Misio Taldearen proiektu aurkezpena Kultur Etxean.

Azaroak 20, osteguna

■ 19:00. *Sahara no se vende* izeneko filmaren emanaldia zuzendarien, Joaquín Calderonen eta Luis Arellanoren, aurkezpenaren laguntzarekin Kultur Etxean.

Azaroak 21, ostirala

■ 17:30. Vuela Bonita Korporation izeneko taldearen *Babel Mundua* antzerki emanaldia Benito Izagirre Kultur Etxean.

Azaroak 23, igandea

■ 12:00. Esparanza Latina Elkarte-ko kideek Ekuadorreko dantza erakustaldia eskainiko dute herriko kaleetan zehar. Ondoren, Ekuadorreko eta Saharako jakien dantza San Bartolome plazan.

11. Txintxarri Egunean bi abesbatzen emanaldiak arrakastatsuak izan dira

Alegia » Eliza jendez bete zen bi abesbatzen emanaldiak entzutea; ondoren bazkaria egin zuten Txintxarri jatetxean.

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek hamaikagarren Txintxarri Eguna ospatu zuten pasa den asteburuan eta talde sendoa direla erakutsi zuten berriro ere. Txikienek nahiz helduek emanaldi hunkigarria eskaini zuten Juan Bautista Deunaren elizan, herritar ugari bertan zirela, eta ondoren egindako bazkari-legean ez zen kanturik falta izan.

Goizean hasi zuten eguna abesbatzakoek, mezarekin. Hain zuten, Txintxarri abesbatzako kantari izan eta gaur egun hilik daudenei eskainitako meza nagusian abestu zuten.

Eguerdi partean musikak ez zuten etenik izan orduntxe hasi bazen bi abesbatdeen emanaldia. Lehendabizi Txintxarri Txiki abesbatza aritu zen 10 minutuz. Hiru kantu eskaini zituzten elkarteok gazteenek Idoia Iraola tolosar gaztearen zuzendaritzapean. Hamabost lagun inguruk osatzen dute taldea, eta entzuleak gustura utzi zituzten, besteak beste *Ederra eta piztia* filmeko kantuarekin eta afrikar kantu eta dantzarekin. Berezi ki azken urteetan haur eta gazteekin ahotsa lantzen egindako lana agerian geratu zen atzo.

Segidan helduen abesbatzako-



Txintxarri abesbatzak emanaldi hunkigarria eskaini zuten. EDU ARRAYET

en txanda izan zen, Garbiñe Orbezoren gidaritzapean. Entzuleei ongi-etorria emateko, aurrekuaren zati ezagunena, *Agurra*, kantatu zuten. Sabin Salaberrik konposatutako *Geurea da* kantu alaia izan zen estreinakoz kantatutako bestea. Aipatutako bi abestietan herriko musikarien laguntza izan zuten: Elena Alustiza eta Izaskun Lopetegui aritu ziren txistuan, eta Rikardo Intxausti, berriz, atabalarekin. Maria Rekondo alegiarra ere gertu izan zuten, beste behin, abeslariak *Danny boy* doinu irlandarra eta Joxe Mari Iparragirreren *Trapu zarrak* kantatzeko.

ezaguna; haizemaile edo abanikoak astinduz eman zitoten amaiera kantuari, entzuleei irribarreak lapurtuz.

Baina zalantzarik gabe belarriak gozatu eta irriak eragin zituen Alegiako traperolari Iparragirrek eskainitako *Trapu zarrak* kantua izan zen. XIX. mende erdialdeko Alegiara salto egin zuen abesbatzak eta Xefe Balerdik piztu egin zuen Ramon Batista trapu-saltzaillea.

Zakua bizkarrean zuela kantuan aritu zen Balerdi elizako aldrean, trapauek erosi eta saltzen zituela irudikatzen. Antzeppen labor horretan parte hartu zuten abesbatzako neskek ere, traperolari trapauek eta zapiak botatz, *Atera, atera, trapauek saltzera* kantatzen zuten bitartean.

Jatetxean, 48 urteak ospatzen

Emanaldiaren ondoren, bazkari legea egin zuten abesbatzaren partaideek. Ohi bezala, kantu eta festa giroan egin zuten bazkaria bai egungo partaideek baita garai bazuetan abesbatzako kantari izan zirenek ere. Izan ere, aspaldikoa da Txintxarri abesbatza, 48 urte bete ditu aurten eta horregatik, ugari dira koruan kantatu izan duten herritarrek.

Mikel Alonsok Reala utziko du, klubarekin akordiora heldu ondoren

Tolosa » Erdilari tolosarrak ez ditu bete beharko kontratuz Realarekin geratzen zaizkion bi urteak.

ERREDAKZIOA

Mikel Alonso tolosarrak Reala utziko ahaliko du, atzo klubarekin heldu zen akordioaren ondoren. Hala, Erdilariak kontratuz gertatzen zaizkion bi urteak ez ditu bete beharko.

Hainbat bide agortu ostean, Mikel Alonso eta Realeko presidente Iñaki Badiola Donostiako gizarte epaitegian izan ziren atzo goizean, eta bertan adostu zuten akordioa. Izan ere, aurretik ez ziren ados jarri ez klubeko bulegoetan ez eta bitartekaritzaz zerbitzuetan ere.

«Guztientzat arazo bat gutxiago»

Mikel Alonsok adierazi zuenez, «guztia ahaztu eta aurrera egin» nahi du; jokalariek «guztientzat arazo bat gutxiago» suposatuko duela adierazi zuen. Klubak, bere aldetik, ez du jakitera eman Alonsori eman beharko dion diru kopurua. Klubak ere «guztientzat onena» dela adierazi du.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

Jarduna
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

- KONTABILITATEA
- ZERGAK
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

euskaraz
13!
laguntzailea
hitza
Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00
Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea
nierebanoa.com webgunean
902 82 02 40 telefonon
KONTSEILUA



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa denda
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

hitza
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

Oinezkoak baino auto gehiago Ikastolara joateko

Anoeta » Mugikortasun Astean egindako ekintzen berri emanez, Ikastolak erakusketa jarri du kirolegian.

IMANOL GARCIA

Anoetako Ikastolan hainbat ekintza burutu zituzten Mugikortasun Astearen baitan. Horien artean DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek mugikortasunarekin eta zaratarekin zerikusia zuten neurketak egin zituzten. Mugikortasunari dagokionez, atera zen emaitzetako bat Ikastolara joaterakoan ibilgailu gehiago joaten zirela oinezkoak baino izan zen.

Argiloa Zeberio DBHko Agendua 21eko arduradunak azaltzen duenez, bi ataletan egin zituzten neurketak horiek. Alde batetik, 08:45etik 09:00etara, Mugikortasun Astearen egun batean, Ikastolara zenbat ibilgailu eta zenbat oinezko joan ziren neurtu zuten. Bestetik, Ikastolaren sarreran eta kirolegiaren aparkalekuan zego-

en zarata maila neurtu zuten sonometro batekin.

Kontaketari dagokionez, ikasleei gehien harritu ziena oinezkoak baino auto kopuru gehiago izatearena izan zen. «Egun horretan ateri zegoen», dio Zeberio. «Euria egin izan balu, oraindik auto gehiago izango ziren». Beste datu bat, ibilgailuetan zihoazen bidaiari kopuruarena izan zen. Ia guztietan, bi bidaiari bakarrik zihoazen, hau da, gurasoa eta ikaslea. Horren

65 eta 70 dezibelioen arteko zarata neurtu zuten, arauk zehazten duten limiteen baitan

arabera, beraz, ez da ohikoak ibilgailuak partekatzea.

Zaratari dagokionez, ikasleek egindako neurketen arabera, 65 eta 70 dezibelioen artekoa zen. Arauek zehazten duten limiteen baitan daude kopuru horiek. «Egia esan, espero genuen zarata handiago izango dela», azaldu du Zeberio.



Kirolegian panel batek Mugikortasun Asteko ekintzen berri ematen du. HITZA

Erakusketa

Neurketa horien emaitzen zein Mugikortasun Astean egindako beste ekintzen berri ematen da kirolegian ikusgai dagoen erakusketan. Sarreran dagoen panel batean erakusten dira neurketak,

Haur Hezkuntzakoek egindako ginkana, LHkoek ikusi zuten bide heziketari buruzko antzerkia eta egun batean ikasleek plazan elkartuta, oinez, bizikletan edo patinetan nola egin zuten Ikastolarako bidea.

Loatzo eskolako hainbat ikasleek musika kalera aterako dute Zezilia omenduz

Musika » Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak egin duen deialdiarekin bat egingo dute biharko ekitaldiarekin.

ERREDAKZIOA

Santa Zezilia Eguna ospatzeko, Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak *Musikalean* deituriko ekintza antolatu du. Horrela, bihar, 18:00etan Loatzo musika eskolako hainbat ikasle aterako dira kaleetara.

Anoeta, Irura, Altzo, Ibarra, Alegi, Villabona eta Zizurkilen, beraz, deialdi horrekin bat eginen, kalejirak egingo dituzte. Deialdiaren helburua, Euskal Herriko musika eskola guztiak egun eta ordu berean kalera ateratzearena da.

Energia eta hitzik gabeko komunikazio tailer trinkoa Asvinenean

ERREDAKZIOA

Asvinenean Energia eta hitzik gabeko komunikazio tailer trinkoa antolatu dute abenduaren 12, 13 eta 14rako, Miren Tirpauren gidaritzapean. Abenduaren 12an 18:00etan hasiko dira eta 14ean arratsaldean bukatuko dute. 95 euro balioko ditu tailerrak.

Tailerri antzerkian aritu diren zentzuzkoekin ere aktuatu ez dutenentzat zuzenduta dago. Bere oinarria J. Grotowsky-ren teknikan, M. Chejov-en teknikan eta esfinterrekin egindako lanean du. Erlaxazio, desblokeo, imaginazio eta kontzentrazio ariketak egingo dira. Mugimendu kontzienteagoa lortzea da helburuetako bat. Izena emateko epea hilaren 30ean amaitzen da eta 647 201 401 zenbakira deitu behar da horretarako.

Guraso topaketak antolatu ditu Udalak urtarrilean hasi eta maiatzera arte

Villabona » Hiru talde daude, bi 0-10 urte artekoan eta bestea 11 urtetik gora; izena emateko, hilaren 26tik aurrera.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Gizarte Zerbitzuak aurtengo ikasturterako ere gurasoen arteko topaketak antolatu dituzte. Hiru talde izango dira: 0-10 adin tarteko hastapene-

ko taldea, 0-10 adin tarteko sakontasun taldea eta 11 urtetik gorako adin tarteko taldea.

0-10 adin tarteko bi taldeen ardurak Maribel San Sebastian psikologoak izango du. Urtarrilean hasiko dira eta maiatzera arte iraungo dute, guztira zortzi saio eginen, bakoitza ordu eta erdikoa.

Hastapen taldean, San Sebastianek berak jarritako gai zehatzak eta oinarrikoak jorratuko dituzte, baina taldeak berak interesa izan dezakeen beste gaiak ere landu di-

tzake. Sakontasun taldean parte hartzeko betebeharrak, bi urte aurreretik guraso eskola batean parte hartu izana da. Talde honetan, gai ezberdinetan sakonduko da modu praktikoagoan.

11 urtetik gorako adin tarteko taldean, Jose Francisco Amiama psikopedagogoak ariko da gidaritzan lanean. Zortzi saio egingo dira hemen ere, urtarrilean hasi eta maiatzera arte, bakoitza ordu eta erdikoa. *Nola egiten die aurre gatazkei familiak?, Elkarbitzita, Gure seme-*

alaben ikasketak, Anai-arreben arteko harremanak dira jorratuko diren gaietako batzuk.

Izena emateko epea hilaren 26tik abenduaren 14ra arte izango da eta Gizarte Zerbitzuetan egin behar da. Leku kopuru mugatua denez, izen-emate ordena kontuan hartuko da eta Villabonako herritarrek lehentasuna izango dute. Udalak ez du izen-emate epea baino lehen eskaerarik onartuko. Ordaindu beharreko kuota 10,40 euroko da.

Hilberria

RAFA



Oleri edo literatura, liburuaren bera, hortxe gustora ibiltzen zinen letraren babes giroan, baina Herio etorri eta gazterik lotu alboan, zauden lekuan zaudela, Rafa, zu beti gure gogoan.

Zure lagunak



TOLOSAN
2008ko
Azaroren 19an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Tolosako ezker abertzalearen kideak herenegun Kultur Etxean eskainitako agerraldian. Bertan aurkeztu zituzten azaroko eta abenduko hitzaldiak. A.I.

Autodeterminazio eskubidearen «eragin praktikoa» aztertuko dute

Tolosa » Ezker abertzaleak hitzaldiak antolatu ditu autodeterminazio eskubidearen ondorioak arloz arlo azaltzeko.

ASIER IMAZ

Tolosako ezker abertzaleak arlo ezberdinei buruzko hitzaldiak antolatu ditu azaroan eta abenduan, «autodeterminazio eskubideak egunerokotasunean eduki dezakeen gauzatzeko praktikoa argitzea» asmoz. Gai hauen inguruan hausnartzera eta hitzaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek, izan ere, ezker abertzalearen esanetan, «irrintzi bat dabil Euskal Herrian zehar».

«Euskal Herriaren aldeko irrintzia: aldaketa nahia»

Ezker abertzalearen esanetan, irrintzi hau aldaketa nahia da, «autodeterminazioaren aldeko uhol-

dea bihurtu behar den aldaketa nahia». Prentsa agerraldian, «euskal jendartearen aldaketaren nahia inoiz baino zabalduago» aurkitzen dela aipatu zuten.

Baina gaur egun zer dago aldaketeko? Galdera honi honela erantzun zioten: «Egun inposatzen zaigun Marko Konstituzional espainiarra eta haren ondorio diren Gernikako Estatutuak eta Nafarroako Amejoramentuak ez dute gure herriaren egiturazko arazoak konpontzeko balio. Ezta euskal herritarren eguneroko eskubideak bermatzeko ere. Alderantziz,

Euskal Herriari askatasunerako bidea ixteko sortu ziren. Ondorioz, egun, gatazka politikoa bere gordintasun osoan ageri zaigu. Alderdi politikoek eta herri eragileek legez kanporatzeak, ekitaldi politikoek debekuak, atxilotaketak, torturak, Euskadi Ta Askatasuna erakundearen ekintza armatuak eta abar, eguneroko ogia dira. Eskubide urraketa horiek guztiak garbi erakusten dute aldaketa inoiz baino beharrezkoagoa dela. Aldi berean, aldaketarako aukerak inoiz baino nabarmenago ageri zaizkigu».

«Baldintza berdinetan, marko demokratiko batean»

Ezker abertzalearen esanetan, aldaketa hauek ahalbideratzeko beharrezkoa da «proiektu politikoz guztiak, independentzia barne, baldintza berdinetan eta askatasunez gauzatzeko aukera». Beste era batera esanda, «Euskal Herriak marko demokratikoa» behar duela aipatu zuten.

«Euskal Herriak bere nazio izaera eta ondorioz dagozkion eskubideak aitortuak eta bermatuak izatea» eskatzen duen bitartean, PNV-EAJ eta PSOE «faltsukerietan» ari direla salatu zuen Tolosako ezker abertzaleak: «PNVk eta PSOEk irudikatzen duten konfrontazio faltsuaz haratago, ez da eskumen edo kompetentzia arazoa herri honek duena. Euskal Herriak ere etorkizuna erabaki nahi du eta horretarako eskubidea eta tresna da Autodeterminazioa. Zazpi herrialdez osaturiko nazioaren eskubidea eta tresna».

LEHEN HITZALDIA BIHAR 20:00ETAN UDALETXEAN

Inaxio Agirrek eskainiko du Tolosako ezker abertzaleak antolatu dituen hitzaldietan lehena. Agirre Euskal Filologian lizentziatua, Tolosako Udaleko Euskara Batzordeburu ohia eta ezker abertzaleko «kide ezaguna» da. *Euskal Herri euskalduna* da Inaxio Agirreraren hitzaldiaren izenburua eta Tolosako udaletxeko bilkura aretoan, bihar 20:00etan, hitz egingo du.

Azaroaren 26ean, Nekane Jurado etorriko da. Abenduaren 2. astean Iñaki Antiguedad eta 3. goan Euskal Herriko Selektzioa izango da hizpide.

Ezezagunek bere gain hartu dituzte errepide mozketak eta sabotajeak

Tolosaldea » Larunbat gauean hainbat ekintza burutu zituzten Tolosan, Ibarra, Alegian eta Iruran.

ERREDAKZIOA

Ezezagunek bere gain hartu dituzte, idatzi baten bidez, asteburuan Tolosaldean gertatutako errepide mozketak eta sabotajeak. Irati Mujikaren «atxiloketa eta torturak» salatu nahi izan dituzte besteak beste ekintza hauen bidez.

Idatzia

«Larunbata, 22:15ak aldera, Iruran errepide mozketak burutu zen, zaborrontziak gurutzatuz.

Larunbata, 22:45ak aldera, Alegi inguruan katenaria baten aurkako sabotaiak burutu zen.

Larunbata, 23:30ak aldera, Ibarra Euskal Herria kalean errepide mozketak burutu zen, zaborrontziak gurutzatuz eta segidan su emanaz.

Larunbata, Tolosan 01:00ak aldera, Gorritiko kurban eta Nafarroa etorbidean, errepide mozketak burutu ziren zaborrontziak gurutzatuz eta su emanaz.

Ekintza hauek guztiak aldarrikatzen ditugu, Irati Mujika amezketarra eta bere bi kide nafarren torturaketak eta espetxeratzeko salatzeko.

Argi utziko dugu ez dugula etsiko eta erasoengainetik Euskal gazterik lanean jarraituko duela Euskal Herri aske eta justu baten alde.

Iratik eta beste atxilotutako gazte guztiak hasitako bidea jarraituko dugu. Borroka lortuko baitugu garaipeña!».

Bihar jokatuko du Olaetxeak Bigarren Mailako lau t'erdiko partida

Lizartza » Finalurreko ligaxkan Cabrerizo II.a edukiko du arerio Olaetxeak Lesakako pilotalekuan.

A. IMAZ

Materiala atzo aukeratu zuten bi pilotariek. Olaetxeak 105,3 eta 104,7 gramoko pilotak aukeratu zituen. Cabrerizo II.ak 103,8 eta 106,1 gramokoak. Bien arteko lau t'erdiko partida bihar jokatuko da 17:30ean Lesakako pilotalekuan. Ligaxkako 2. garapenaren bila irtingo da lizartzarra.

Puntu bat, mundu bat



» Herrira begira

Asier Arzallus
Saskibaloi jokalaria

Aurreneko artikuloa idatzi netik bi aste pasa die, denbora tartelaburre, beño gauzek dexente okertu zaizkiula esan beharra dauket. Komentatu nun bezela Liga

hontan bi partidu irabazi ezkeo salto haundi ematen dozo goraldea, beño bi galdu ezkeo zulora asko hurbiltzen za, taguri bigarren hau suertatu zaiu.

Oain dela bi aste nere biziko partidu luze, gogor eta suerte txarrenekoa jokatu nun. Gauze gehio ezin die pasa partidu baten. Partidu gehiena markagailun atzetik joan ondoren bukaeran buelta emateko lortu giñun, ta azken jokaldin bi puntuz galtzen giñun ta 15 segundu falta zien. Jokaldi ona in giñun ta taldekide batek hiruko bat sartu zun azken segundun! Beño arbitroari bettu ta hara non esaten

don marra zapaltzen ai zela ta bi puntuko zela, 70-70 ta luzapenera. Ezin giñun sinistu.

Aurreneko luzapena berdindu in giñun berriz eta bigarren bat jokatu beharizan giñun. Hau aski ez balitz, berriz berdindu in giñun ta hirugarren luzapenera joan giñun. Ematten zun ez giñula inoiz bukatuko partidue beño azkenen 107-106 galduz bukatu giñun luzapen hau. Puntu bat askotan ez da deus, beño beste batzutan mundubat da, dena aldatzen do goitik behera, aste guttikolana deustako.

Partidu hau Bartzelonan zen, Cornellan hain zuzen, eta autobu-

sez joan giñen Coruñaetik. Zenbat ordu? 12-13 ordu joateko ta beste hainbeste bueltatzeko. Irabazi ondoren xamurregoa izaten da buelta, beño hola galdu ondoren ematten zun etzela inoiz bukatuko, partidue bezelaxe, jeje.

Asteburu hontan etxetik hurbil jokatzen du, Ourense. Ligako talde potentetako bat da beño oso garrantzitsue da guretzeko irabaztea, eta edozein moduta lortu beharra daukeu.

Bukatzeko gaurkoan Aurrera futbol taldeko nere launek animatu nahi nittuzke. Badakitez daudela bere momentu hobenen. Beño daukean kastakin, jartzen dituen gogoakin ta beraien umore onakin, seguro nau settun goraka joanen diela. Apa Aurrera!



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leiz: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leiz: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

- **Aduna.** 20:00etan Aduna eta El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen anaieratzea.
- **Ibarra.** Senidetze Misiolariaren Lorpene: Ibarra Ekuadorreko Santa Rosa eta Babarekin Ibaratik Misio Taldearen proiektu aurkezpena Kultur Etxean 19:30ean.

Hitzaldia

- **Tolosa.** *Tolosako babarruna, orain eta gero* mahai-ingurua Kultur Etxean 19.00etatik aurrera. Sarre-ara doakoa izango da.

Deialdiak

- **Anoeta.** Alkartasuna Biltokiak jubilatuena meza 12:30ean eta bazkaria antolatu du Alkartasuna biltokiak hilaren 27an Zuloaga txiki jatetxean, elkarrearen XVI. urtemugan eta Milagrosa delako. Izen-ematea, elkartean 22 eurotan (bazkide ez direnek, 25).
- **Berrobi.** Fronteniseko Txapelketan parte hartzeko izena emateko azken eguna udaletxean, Iturriza janaridendan eta Iriarte jatetxean, edo Tolosako Aralar dendan. Zozketa, 20ean 21:00etan Etxolan.
- **Tolosa.** Babarrun Astearen baitan, urtero bezala, herri bazkaria izango da hilaren 23an Zerkausian, Gure Kaiola elkarteak antolatuta. Bazkarirako txartelak elkartean bertan erosi daitezke jada, 22 eurotan, 19:30etik 21:00etara.
- **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatu duen ekitaldira autobus antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).
- **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonarriz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.

Kirolak

- **Tolosa.** Boulder eskalada txapelketa Oargi elkartean azaroaren 22an 15:00etan. Izen-ematea, 688 698642, edo info@oargi.org.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. amarotz auzoa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

San Gregorio ere bertsoan

Albiztur » Bertso afari batekin ospatu zuten eguna herenegun; asteburuan ere egingo dituzte hainbat ekitaldi.

ESTIEZEIZA

Bertsotan ospatu zuten herenegun San Gregorio Eguna Albizturren. Izenbera duen ermitan meza ospatu ostein, 30 lagun inguru bildu ziren Ugarte jatetxean, afariaz eta bertsoez gozatzeko asmoarekin. Bi bertsolari, Hamaika Bertuteko kide diren Amaia Agirre eta Beñat Iguaran hasi ziren afalostealaizten; ondoren, Milian Telleria gehitu zitzaizen.

Asteleheneko ospakizunei jarraipena emateko, larunbat honetan, talo ikastaroa izango da Kultur Etxean, eta jarraian, Gerra Zibilarren inguruko diaporama. Lazkao ko bi talogile etorriko dira herritarrei hauek nola egiten diren erakustera. Gero, hauek dastatzeko aukera izango da, txorizo, hirugiharre, gazta eta txokolatearekin.

Eguna amaitzeko, *36an 13 urte edukitzea* diaporama ikuskizuna izango da toki berean. Kepa Gonzalezek zuzendutako lan honetan Joakin Galvez da protagonista. Bertan, Galvez hondarribiarren historia kontatzen dute. Gaur egun 80 urte ditu, eta atzo gertatutako gauza balitz bezala oroitzen du iragana. 13 urtezituen Espainiako gerra zibila hasi zenean, Irungo



30 lagun inguru bildu ziren mahaiaren inguruan Agirrerren eta Iguaranen bertsoak entzuterako. ESTIEZEIZA

etxea utzi egin behar izan zuen eta erbestera bide luzea egin.

Ohiturari jarraituz, igandean, berriro ere, meza ospatuko da San Gregorio ermitan. Hau amaitu eta gero, toka txapelketa jokatuko da Ugarte jatetxearen atarian.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)

20€

Egin eskaña amaitu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidedun kodea

hitza info